

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2025ko otsailaren 22etik 28erako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2025-02-27

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2025eko otsailaren 18koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiak emana, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baitira zezenketen VI. hitzarmen kolektibo nazionalaren 2025. urterako soldata-taulen eguneratzeak. **3954 xedapena- 32 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2025-02-25

- **EUSKO JAURLARITZA. EKONOMIA, LANA ETA ENPLEGUA.** Gipuzkoako Titularitate Publikoko Kirol Instalazioetarako hitzarmen kolektiboaren 2025erako soldataren berrikuspena. **1169 xedapena- 2 or.**
- **EUSKO JAURLARITZA. EKONOMIA, LANA ETA ENPLEGUA.** Gipuzkoako informazioaren eta dokumentazioaren kudeatzaileentzako sektoreko hitzarmen kolektiboaren 2025erako soldataren berrikuspena. **1170 xedapena- 3 or.**

2025-02-27

- **EUSKO JAURLARITZA. EKONOMIA, LANA ETA ENPLEGUA.** Gipuzkoako Bide-Garbiketa Publikoa eta Hiri-Hondakin Solidoen Bilketaren lan hitzarmenaren 2025erako soldataren berrikuspena. **1253 xedapena- 7 or.**

2025-02-28

- **EUSKO JAURLARITZA. EKONOMIA, LANA ETA ENPLEGUA.** Gipuzkoako Enpresa Transitarioen hitzarmen kolektiboaren 2025erako soldataren berrikuspena. **1348 xedapena-2 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2025-02-22

- **OGASUN MINISTERIOA. Estatuko sektore publikoa. Kontabilitatea.** Honen akats-zuzenketa: HAC/148/2025 Agindua, otsailaren 7koa, uztailaren 22ko EHA/2043/2010 Agindua aldatzen duena. Agindu horren bidez arautzen dira estatuaren enpresa- eta fundazio-sektore publikoko entitateek Kontuen Auzitegiari eman beharreko urteko kontuak eta gainerako informazioa eta Administrazioaren Kontu-hartzailetza Nagusiari urtean behin eta hiru hilean behin bidali beharreko informazioa bidaltzeko prozedura. **3557 xedapena- 2 or.**
- **BARNE MINISTERIOA. Zirkulazioa. Neurri bereziak.** Ebazpena, 2025eko otsailaren 18koa, Trafiko Zuzendaritza Nagusiarena, 2025ean trafikoa arautzeko neurri bereziak ezartzen dituen 2025eko urtarrilaren 20ko ebazpenaren akatsak aldatzen dituena. **3559 xedapena- 1 or.**
- **TRANTSIZIO EKOLOGIKORAKO ETA ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO MINISTERIOA. Kutsadura atmosferikoa.** 91/2025 Errege Dekretua, otsailaren 11koa, zeinaren bidez ezartzen baita energiaren, klima-aldaketa-aren eta airearen kalitatearen arloko gobernantza-mekanismoa. **3560 xedapena- 22 or.**

2025-02-25

- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA. Nekazaritza-aseguru konbinatuak.** PJC/173/2025 Agindua, otsailaren 21ekoa, zeinaren bidez onesten baita nekazaritza-aseguru konbinatuak babestutako honako landare hauen ekoizpenetan sortzen diren kalteak peritatzeko arau espezifikoak: edukiontzietan landatutako landare apaingarriak, zuhaixka-laboreetan urtebetetik beherako hazkuntza-zikloa dutenak; landare usaintsuak, sendagarriak eta sukaldaritzarakoak; sasoiko landareak, landare igokariak eta barruko landareak. **3714 xedapena- 7 or.**
- **GARRAIOKO ETA MUGIKORTASUN JASANGARRIKO MINISTERIOA. Errepide bidezko garraioak.** 2025eko otsailaren 21eko Ebazpena, Lurreko eta Trenbideko Garraioaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez aldatzen baita 2022ko martxoaren 18ko Ebazpena, errepide bidezko garraioko gidarien lanaldien gaineko gutxieneko kontrolak ezartzen dituena. **3715 xedapena- 6 or.**

2025-02-26

- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA. Gizarte Segurantzza.** PJC/178/2025 Agindua, otsailaren 25ekoa, zeinaren bidez garatzen baitira Gizarte Segurantzaren kotizaziorako, langabeziarako, jarduera eteteagatiko babeserako, Soldatak Bermatzeko Funtserako eta lanbide-heziketarako 2025eko ekitaldirako lege-arauak. **3780 xedapena-42 or.**
- **GARRAIOKO ETA MUGIKORTASUN JASANGARRIKO MINISTERIOA. Aireontziak.** 141/2025 Errege Dekretua, otsailaren 25ekoa, zeinaren bidez ezartzen baitira aireontzi motordun ultraarinen aire-nabigarritasunaren funtsezko eskakizunak, eta zeinaren bidez aldatzen baita, batetik, maiatzaren 31ko Agindua, afizionatuek aireontziak eraikitzeko araudi berria onesten duena, eta, bestetik, araudia bera **3781 xedapena- 45 or.**

2025-02-28

- **OGASUN MINISTERIOA. Zergei buruzko informazioa.** HAC/184/2025 Agindua, otsailaren 25ekoa, zeinaren bidez onesten baita negoziazio-zentroetan negoziatutako baloreen zerrenda, 2024ko laugarren hiruhilekoari dagokion batez besteko negoziazio-balioarekin, 2024. urteko Ondarearen gaineko Zergaren aitorpenerako eta balore, aseguru eta errentei buruzko urteko informazio-aitorpenerako. **3970 xedapena- 27 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2026-02-26

- **SEGURTASUN SAILA.** AGINDUA, 2024ko azaroaren 18koa, Segurtasuneko sailburuarena, Ertzaintzaren egitura onartzen duena. **899 xedapena- 12 or.**

2025-02-28

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** 42/2025 DEKRETUA, otsailaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko Dekretua hirugarrenez aldatzen duena. **953 xedapena- 4 or.**

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO